

## ZER MERKATURI DAGO BIDERATUA? (SEGMENTAZIOA)

Gure produktua merkatu masibora bideratuta dago. Izan ere, betaurreko graduatuak zein eguzkitako betaurrekoak erabiltzen dituzten pertsonentzat dago zuzendua. Kontuan izanda geroz eta jende gehiakok dituela ikusteko arazoak eta eguzkitako betaurrekoak ia mundu guztiak erabiltzen dituela, biztanleriaren gehiengoa sartu daiteke gure bezero potentzialaren kategorian. Gainera, bi iraupen desberdineko produktuak ditugunez, pertsona gehiagorengana iristeko ahalmena dugu, izan ere, lentillekin gertatzen den bezala, zer frekuentziarekin aldatzearen aukeraketa bezeroen beharren arabera da eta haien esku geratzen da.



### - *MERKATU AZTERKETA*

#### • *EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA*

INEren datuen arabera EAEn **1.214.200** pertsonak erabiltzen dituzte betaurrekoak( *INE* azterketa gunetik atera ditugu datuak). Honen arabera, gure helburua, urte bateko denbora tartean, **364.320** pertsonak (% **30**) gure produktua erostea da. Beraz, produzitutako kantitatea helburu horretara dago bideratua.

#### • *ESPAINIA (MERKATU-ZABALKUNTZA EGITEN BADUGU)*

INEren datuen arabera, **39.000.000** pertsonak erabiltzen dituzte betaurrekoak Espainia mailan. Horren arabera, eta merkatu-zabalkuntza eginez gero, gure helburua, 1-2 urteko denbora tartean, gure produktua **10.000.000** pertsonelk (%**21,39**) erostea da. Beraz, merkatu-zabalkuntza egingo bagenu, produzitutako kantitatea helburu honetara egongo legoke bideratua.